

IKASLEEN TXOKOA|45|

ZENBAKIA

IES HERNANI BHI



**Mekanikan ere, azken urteetako aldaketa
haundiena teknologia berriek ekarri dute / II**



**Instalazio
elektroteknikoetako
ikasleak, gustura
Lanbide Heziketan / III**

LANBIDE HEZIKETAKO
1IE3 TALDEKO IKASLEAK



**Agur bero bat
Poloniatik!! / III**

JOSU OLAIZOLA ETA JON GALDEANO

KOSMODISEA SARIETAN HERNANIARRAK
2GARREN ETA 3GARREN

**«Tinta berriz
erabiltzeko makina
batek sekulako
aldaketa ekarriko
luke; hori aztertu
dugu guk» / IV**

Ikasleen Txokoa kaleratzen da Hernaniko ikastola eta ikastetxeek Hernaniko Udalarekin eta Hernaniko Kronikarekin egindako elkarlanari esker. Datozen hilabeteetan jarraipena izango du.

IES HERNANI BHI

Mekanikan ere, azken urteetako aldaketa haundiena teknologia berriek ekarri dute

AZKEN urteetan, gure ingurune-ko ekoizpen-egiturak aldaketa bat eduki du, globalizazio ekonomikoaren, informazio-teknologiaren aurrerakuntzen eta enpresen ekoizpen eta kudeaketen teknika berrien eraginez.

Egoera berri honen aurrean, lanpostuen egonkortasuna eta enpresen lehiakortasunaren mantentzea lortu nahi duen edozein ekonomiak, langile kualifikatuak behar ditu, trebetasun handikoak eta etengabeko prestakuntzarako gaituak, beraien lanbidean agertuko zaien edozein erronkari aurre egin ahal izango diotenak. Helburu horiek, langileen prestakuntza egoki batekin lortu behar dira, bai hasierako prestakuntza aldetik, bai eta lan munduan sartu aurrekoa, jarraitua eta etengabekoa.

IES HERNANI BHI-ko Mekanika saila, bilakaera guzti honen aurrean, ekoizpen-egiturak jasan duen aldaketa honetara egokitu egin da, inguruko enpresen eta gizartearen beharrei aurre egin ahal izateko.

Dudarik gabe, azken urteetako aldaketarik nabariena, komunikazio eta informazio-teknologia berrien ezarpena eta garapena izan da, bai eta gure ikaslearen aldetik Diseinu eta Fabrikazio enpresetan geroz eta gehiago erabiltzen diren informatika programa berrien erabilpena. Honen helburua, gure ikasleen trebakuntza eta gaur egungo lan-mundurako egokitze azkar eta egokia izatea da.

Ildo honetan, gure Sailak informatika arlotik berrikuntza handiak eduki ditu, momentuko ordenagailu-ikasle ratioa oso egokia delarik eta bere prestakuntza errazten duten ekipamendu berriak dituelarik.

Gure Sailak osatzen duten eremu ezberdinetan egon diren informatikako programa berri eta gaurkotuen ezarpena eta erabilpena, zabala izan da. Adibidez:

- CAD arloak marrazketarako programa hauek erabiltzen ditu: 2D AUTOCAD, 3D SOLIWORKS eta NX, azken hau plastikozko injekzioarako moldeen eta trokel progresiboen diseinurako erabiltzen delarik.

- CAD-CAM arloan, ikasleak zenbakizko kontrola duten maki-



Mekanikako ikaslea.

nen programazio eta exekuziorako prestatuak izaten dira, programa hauek erabiliz: FAGOR 8055 eta HEIDENHAIN tornu eta mekanizazio-zentroetan eta 3D mekanizazioan GIBBScam programa.

- Metrologia arloan, irakaskuntzarako STATPAK kontrol estatistikoko programa eta 3D GEOPAK programa erabiltzen dira. Azken programa honen bitartez, beste gauzen artean, lan postu bat dibertsifikatu egin da, honetarako bideo sistema bat erabiltzen delarik, ikasle guztiak azalpenak modu oso grafiko batean jarraituz.

- Automatismo pneumatiko eta hidrauliko arloan, AUTOMATION STUDIO programa erabiltzen da. Programa hau, sistema hidrauliko, pneumatiko eta automatizatuen diseinu eta mantenuan oinarrituta dago. Duela urte gutxi MEKATRONIKA atalerako zelula malgu bat ezarri zen, honek ekoizpen-kate bat simulatzen duelarik.

Hurrengo ikasturteari begira eta gauza berria bezala, Mekanika Sailak hiru atal dituen tailer berri bat eratu du (soldadura, mekanizazioa eta muntaketa eta desmuntaketa), HASIERAKO LANBIDE PRESTAKUNTZAKO PROGRAMA (HLPP)-ri estaldura emango diolarik, DBH-ko ikasketak gainditzen ez dituzten ikasleentzat.

Programa honen perfil profesionala, mekanizazio langilea izango da.

Etengabeko prestakuntzak garrantzi handia dauka gure Sailean, bai langile aktiboen birziklapenean bai eta langabetuen prestakuntzan, hauek egungo krisi egoera honetan, L.H.-ko ikastetxeetara etortzen direlarik lana aurkitzen ahalbideratuko dieten arlo berrietan prestatu ahal izateko.

Azken urteetako beste alderdi garrantzitsu bat, LOE-k ezarritako heziketa ziklo berrien pausoz pausoko garapena izan da, LOGSE-ko zikloak desagertu direlarik. Honek, Curriculum-diseinuak lege berrira egokitzea behartu du, honela besteak beste, modulu ezberdinen programazio guztiak berrikusi eta berregin behar izan direlarik.

Bestalde, tailer mekanikako makina guztiak EE-k behartzen duen segurtasun elementuekin hornitu dira. Gainera, geroz eta indar gehiago du tailer mekanikotetan erabiltzen diren elementu toxikoen birziklapen egokiak, batez ere olio eta taladrinena, modu honetan inguruarekiko sentibilizazio handiago bat sortzen delarik.

Hauek dira modu orokor batetan, azken hamarkadan, IES HERNANI BHI-ko Mekanika Sailean egon diren aldaketa esanguratsuenak. ||

Hernani BHIk berritze bidetik aurrera darrai!

Jende asko gure instalazioak ikusterakoan harriturik gelditzen da hain berri eta hain aurreratuak egoteagatik. Badago aurreiritzi zabaldua Lanbide Heziketari buruz, tailer ilunak eta buzo zikina derrigorrezkoa direla benetako langilea izaten ikasteko. Guk esan behar dugu garai horiek pasa direla, jakina tailerak derrigorrezkoak direla (bestela ez litzateke Lanbide Heziketa izango) eta jakina buzoa erabili behar dela, baina "iluntasuna" desagertu da eta argitasuna eta berrikuntza nagusitu dira.

Berritze bidetik jarraitu nahian, aurten eskaintza handitu egin dugu, eta horrez gain gure betiko eskaintza LOE lege berriari egokitu diogu. Esan beharra dugu ere, ikasle guztiak egin dituztela Enpresetako Praktika, eta horietako bik atzerrian, zehazki Polonian.

Gure aurreko urteetako ibilbidean beti izan genuen Zerbitzuetako eskaintza, eta duela lau urte kendu ziguten, arrazoi argirik eman gabe; baina orain berreskuratu dugu eta Gizarte eta Kultur Animazioa ere eskaintzen dugu. Hernanirako garrantzitsua delakoan gaude populazioaren beste zati batentzat eskaintza interesantea plazaratzea, zerbitzu arlokoa eta gainera gazteekin zein helduekin lan egiteko aukerak zabalduz.

Ezin ahaztu PCPI programak ere martxan jarri ditugula, aukera hau ere interesantea delakoan eskaintzen dugu. Egon badago titulurik lortu ez duen jendea eta horiei lagundu nahian aurkezten dugu aukera hau; tailerak berritu eta hornikuntza berria erosi dugu baldintza ahalik eta hoberenean irakasteko.

Berritze bidetik jarraituko dugu eta berrikuntzak txertatu ditugu gure eskaintza eguneratua eta garaietara egokitua izateko.

Ikasketa Burua:
Kepa Zamalloa.

Ikasle txokoa

45

zenbakia

euskara
ari du

Agur bero bat Poloniatik!!

Agur bero bat Poloniatik!!
Badira aste dezente lur arrotz hauetatik nabilela eta esperientzi zeharo aberasgarria dela esan dezaket. Jende berria ezagutzeko esperientziarekin murgildu nintzen abentura honetan eta hala izan da. Euskal Herriko txoko desberdinetatik etorritakoak eta baita ere España aldeko baten bat ere. Denborak aurrera joan ahala, eta lan mundutik kanpora irteera dezente egin ditugu. Hala nola Krakovian gatzen meategiak, Auschwitzeko Nazien kontzentrazio kanpoa eta beste hainbat leku ezagutu genituen. Varsovian ere izan nintzen etxeko lagun batzuekin asteburu pasa eta duela egun gutxi 10 eguneko bidai batetik etorri nintzen non bertan Budapest, Viena, Bratislaba eta Praga ezagutu nituen. Herrialde bakoitza bere kultura eta bere garapen desberdinarekin.

Nere Herrialdeari dago-kionean, esan, oraindik garatzen ari dela eta horren adibide errepideak ditugu. Lan erritmoak ere batzuetan karibeko erritmoa diru-



Polonian dira bi hernaniarrak.

di. Adibide bezala nere etxea jartzen dut. 3 pisuko etxe unifamiliar bat non 3 hilabete iraun duten berau biltzen duen berja ipintzeko. Bitxikeri bezala ere aipatu nik lan egiten nuen lekuan (herriko zentro

komertzialik handiena; 3 pisu, 1200 langile 1000m² ko lokalak...) eskailera mekaniko bat ipintzen ari ziren une berean langile bat barbakoa bat preparatzen ari zela espatula eta guzti bere hamaiketako baterako.

Niri dagokidanean, fibra optiko eta telefono instalakuntzak egiten ibili nintzen. Aparteko esfortzu fisikorik egin gabe. Gainera lan giro ona genuenez denbora errazago joaten zen.

Gaueko kontuetaz zer

esan, Euskaldunak jaiok gara horretan!! Beti eduki dugu txokoren bat edo beste, zerbeza batzuk edo hemengo edari nazionaletik traguren bat hartzeko, VODKA. Eta gainera bertako herritar eder batekin bada hobeto.

Esan esperientzi honek akats bat baldin badu, ez nukela bi aldiz pentsatuko. Janaria. Ez nahiz ohitu eta ez dut uste nire pisukidetakoa inor ohitu denik. Ia egunero zopa eta bigarren platera oilaskoa. Gainera jartzen zizkiguten razioak oso txikiak izaten ziren eta gu asko jatekoak ginenez egun asko izaten ziren etxerako bueltan gosez bueltatzen ginenak. *Eskerrak* Polonian ere multinazionalak muturra sartu duten eta 5 eurotan (20 ezloti) pizza bat jateko aukera genuen ia edozein ordutan.

Besterik gabe esan oso esperientzi atsegin eta aberasgarria izan dela eta edozeini gomendatzen diodala.

IES HERNANI BHiko
ikasleak
**Josu Olaizola eta
Jon Galdeano**

Instalazio elektroteknikoetako ikasleak, gustura Lanbide Heziketan

INSTALAZIO elektroteknikoetako ikasleak gustura Lanbide Heziketan.

Modulu honetan, garrantzi gehien praktikei ematen zaie. Praktika teoriari gailentzen zaio ikasgai gehienetan. Batxilergotik etorrira ez dago modulu hau gainditzeko arazorik lanak eguneratuak eraman badituzu. Montajea, erabilera eta programazioa ikasten da. Beste ziklo bat eginda baduzu barne konbaldazioak egin daitezke ordu libreak edukitzeko.

Lanerako irtenbide ugari daude, teknologia berriak ikasten dira, domotika, eguzki plakak..., instalatzaile

txartela ematen dute moduluaren amaieran, inguruko enpresa garrantzitsuekin harreman handia du eskolak bertara praktikak egiteko eta askori bertan jarraitzeko aukera ematen diete. Praktikak atzerrian egiteko aukera ere badago Erasmus bekari esker. Azken urteetan Italiara, Portugalera, Poloniara, Alemaniara... joan dira ikasleak, aurtengoak Polonian daude. Gainera krisiarekin lan asko sortuko da gure sektorean.

Eskolan praktikak egiteko beharrezkoa den materiala oso aproposa da, merkatura ateratzen diren produktu

berriak eskolan edukitzen ditugu. Ordenagailu gela asko ditugu lan egiteko eta gela askotan berrikuntzak egin dira ikasleen erosotasunerako.

Eskolatik irteerak egiten dira enpresa ezberdinak bisitatzera: Irizarrera, Iberdrolara eta Madrilen bi urtetik behin egiten den erakusketara.

Ordutegia oso ona da aukera ematen duelako arratsaldean lan egiteko eta lagunekin egoteko.

Krisia dela eta garai ezin hobea da ikasteko Anima zaitetz!

**Lanbide Heziketako
1IE3 taldeko ikasleak**



45

zenbakia

ikasleen txokoa

KOSMODISEA sarietan hernaniarrak 2garren eta 3garren

«Tinta berriz erabiltzeko makina batek sekulako aldaketa ekarriko luke; hori aztertu dugu guk»

Kosmodisea Sariak Diputazioak antolatzen ditu. Aurten, Hernani BHI-ko bi talde aurkeztu dira, eta bigarren eta hirugarren postuak lortu dituzte. Ikasturte guztian zehar egin dituzte proiektuak; gaia: tinta berrerabiltzeko makina.

«IDEIA erraza da: papera tintarekin sartu, eta tinta gabe ateratzen duen makina. Tinta kendu egingo lioke paperari; beraz, berrerabili egingo luke tinta». Jon Patxek primeran azaldu dio Kronikari zein den proiektuaren abiapuntua. Hortik abiatuta, proiektu zabal bat egin behar zuten ikasleek, taldeka, eta Hernani BHI-ko bi taldeek sariak lortu dituzte: bigarren saria, eta hirugarren saria. Horrez gain, aurkezpenik onenaren saria ere lortu dute.

Kosmodisea Sariak urtero antolatzen ditu Gipuzkoako Diputazioak. Logos kategorian (16-17 urte) 26 talde aurkeztu dira aurten, eta 4 arlotan lehiatu zitezkeen. Hernaniko bi taldeak Zientzia Arloan lehiatu dira, eta talde guztiek gai beraren inguruan egin dituzte proiektuak, urrian hasi, eta maiatzera bitarte.

ZLF taldea, bigarren saria, proiektu osoari

Naturari onura ederrak ekarriko lizkioke makina honek: «zuhaitz gutxiago moztuko genituzke, eta kontaminatu ere gutxiago egingo genuke, hainbeste tinta gastatuko ez genukeelako». Berez, proiektuak hiru zati ditu. Proiektua saldu egin behar da, argudioak eta aurkezpena zainduz, eta ondorio orokorrak ere eman behar dira.

ZLF taldeak bigarren saria irabazi du, lan osoari. Emaizta ikusi nahi duenak, interneten dauka azken bideoa: Youtubean, *zlf3000+Hernani* sartuta.

Lau protagonistak gustora daude egindako lanarekin, eta ez da gutxiagorako, ikasturte osoa pasa baitute eskola ordur kanpora lanean. Taldekideak: Jon Patxe, Iker Izagirre, Nora Oruezabala eta Olatz Pavón.

ATIME taldea, aurkezpen originalena

Idea oso-osorik garatu behar izaten da Kosmodisea Sarietan, eta horretan bikain moldatu dira ATIME taldeko



Hernani BHIko bederatzi kideak ikasturte guztian aritu dira Kosmodisearako lanean.

kideak, hirugarren saria irabazi baitute. Horrez gain, ordea, aurkezpenari berebiziko garrantzia ematen diote, eta hor berdinik ez dute izan hernaniarrek. Hasierako audioan, punturik gehien beraiek lortu zuten, eta azkeneko aurkezpenean ere lan originala egin zuten. Youtubean ikusi liteke, *Hernani BHI* sartuta.

Bideo originala aurkeztu dute ATIME taldeko kideek: «antzerki moduko bat egin dugu. Hernanin makina hori sortu zela irudikatu dugu, eta izugarritzko arrakasta izaten duela. Tinta eta papera berrerabiltzen hasiko da jendea, eta hori positiboa da. Baina zenbait sektorek nabaritu egingo du. Zikuñagako papelerako langileak langabezira dijoaz, eta ikusirik zein den arazoa

Bideo bana egin dute bi taldeek proiektua bukatzeko, eta ikusteko moduan dago interneten, Youtubean: Hernani BHI sartuta.

Samsung argazki makina bana irabazi dute ikasleek, eta baita disko-gogor esterno bat eta aurikularrak ere.

eragin duena, makina ostuko dute... gero konflikto bat dago, eta soluzio bila ibiliko dira denak». Amaia Urzelai irakasleak garrantzia eman dio aurkezpeneko gaiari, eta enfokeari: «konflikto bat azaldu dute, eta hori oso positiboa da; beste

ikuspuntua bat da: aurrerapen guztiek, soluzio guztiek, daukate bere alde txarra ere, eta kontuan hartzekoa da».

Bost artistak: Kepa Sañudo, Naroa Jaka, Lander Berrueta, Maialen Galdeano, eta Maider Ugalde.

Argazki makina bana opari
Saria irabazteagatik, Samsung argazki makina bat jaso zuten ikasleek; disko-gogor externo bat eta aurikularrak. Institutuak 2 ordenagailu portatil jaso ditu.

Kosmodisea, jarrera ekintzailei saria
Kosmodisea Sarietan taldelana eta jarrera ekintzailea baloratu nahi dira, eta teknologia berriak erabiltzea ere bultzatu nahi da. ||

KOSMODISEA SARIAK

LOGOS KATEGORIA (16-17 urte)

ZLF TALDEA:

Bigarren Saria

Jon Patxe
Iker Izagirre
Nora Oruezabala
Olatz Pavón

ATIME TALDEA:

Hirugarren Saria

Aurkezpen Onena

Kepa Sañudo
Naroa Jaka
Lander Berrueta
Maialen Galdeano
Maider Ugalde